



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 28a

92. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 11-24/POR-00252. Galdera, landa-eremuan erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibei bultzada publikoa emateko plan estrategikoari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/PES-00312. Galdera, Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (4. or.).
- 11-24/PES-00313. Galdera, Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzeei eta salaketei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (4. or.).
- 11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00315. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena"). Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00316. Galdera, trafikoko isunak *online* ordaintzeari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00317. Galdera, joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00318. Galdera, Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00319. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00320. Galdera, bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00321. Galdera, ekografia urgenteetarako irispideari begira merkatuko alde zuzeneko kontsulta egiteari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00322. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).

- 11-24/PES-00323. Galdera, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00324. Galdera, Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00325. Galdera, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00326. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00327. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (14. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00252. Galdera, landa-eremuan erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibei bultzada publikoa emateko plan estrategikoari buruzkoa**

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, landa-eremuan erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibei bultzada publikoa emateko plan estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibei bultzada publikoa emateko plan estrategikoa azaltze aldera egin diren lurralde-bilkurak direla-eta, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer baliabide ekonomikorekin edo/eta mekanismo tekniko edo/eta pertsonalekin ezarri nahi du landa-eremuan erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibei bultzada publikoa emateko plan estrategikoa?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-24/PES-00312. Galdera, Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez da lurzati-berrantolamendua egiten Viana 1-en eta urratzen da, halatan, martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00313. Galdera, Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzei eta salaketei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzei eta salaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Barneko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zertan dira Foruzaingoak azken hilabeteotan egindako arma eta lehergai konfiskatzeak eta salaketak?

Departamentuak zer egitea aurreikusten du?

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzen eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Foruzaingoaren lan publikoaren eskaintza berria dela-eta arazoak sortu dira berriki; izan ere, aurreikusitako lanpostuen kopuruak eta gaur egungo foruzainen kopuruak gainditu egingen luke Segurtasun Batzordean 2009ko ekainaren 30eko bilkuran Estatuarekin hitzartutako gehieneko kopurua.

Ekainaren 30eko Segurtasun Batzordearen aktaren II. eranskinean, plangintza bat ezarri zen lehenbiziko aldiz, "Nafarroako Foruzaingoaren eta Nafarroako Foru Komunitatean jardun diren Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen baliabideen garapen koordinatua" titulupean hain zuzen ere, 2007tik 2011ra bitarte Foruzaingoak izanen zituen kide-kopurua dela-eta.

Plangintza hau ezarri zen:

- 2007ko abenduaren 31: 900 kide
- 2008ko abenduaren 31: 900 kide
- 2009ko abenduaren 31: 1.000 kide
- 2010eko abenduaren 31: 1.100 kide
- 2011ko abenduaren 31: 1.200 kide

Kasu horietan guztietan aurreikusten zen zer egin behar zen baldin eta urte horietan Nafarroak trafikoaren arloko eskumen osoa bereganatzen bazuen; izan ere, plangintza horren arabera Foruzaingoak izatera ailegatuko litzatekeen kideen urteko kopuru osoan ez lirateke sartuko "trafikorako beharrezkoak izanen liratekeen kide gehigarriak". Alegia, eskumen hori oso-osorik utziz gero Nafarroaren eskutan, Nafarroari baimendu egingen litzazkioke, hitzartutako kideez gain, beharrezkoak liratekeenak.

2011tik aitzina, Foruzaingoak 1.200 kide izan behar zituen, baina kopuru horretara ailegatzeko nahitaez abian jarri behar da lan publikoaren eskaintza hori.

2009ko ekainaren 30eko Segurtasun Batzordearen bilkura horretan onetsi zen Nafarroako Foruzaingoak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek eginkizunak partekatzeak akordioa, bai eta kasuko operazio-protokoloak ere. Honako hau izan zen polizia-koordinaziorako hitzartutako jarduketa-printzipioetako bat:

"Foruzaingoak progresiboki hartuko ditu bere gain ordenamendu juridiko indardunak esleitzen dizkion eginkizunak, bere baliabideak handitzeak ahalbidetzen duen neurrian, eta Segurtasun Indar eta Kidegoek dauzkaten eginkizunekiko koordinazioan gauzatuko litzateke egiaz, eta Segurtasun Batzordeak zehazten duenaren arabera zehaztuko litzateke kidego bakoitzaren esku-hartzearen norainokoa".

Halatan, bere baliabideak handitzearen mende geratzen zen Foruzaingoari ustez dagozkion eginkizunak betetzea (lankidetzak-akordioak berriaz jaso ziren eginkizun horiek), herritarren segurtasunarekin lotutakoak eta polizia administratiboaren arlokoak (trafikoa, jokia eta ikuskizuna, naturaren kontserbazioa eta ingurumena, polizia judiziala...), halako moduan non Foruzaingoko kideak nabarmen handituz gero soilik beteko bailirateke oso-osorik eginkizun horiek.

2009an ezarritako mugarekin (1.200 kide), ezinezkoa da Foruzaingoak berak bakarrik betetzea –ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion terminoetan– herritarren segurtasunarekin, ordena publikoarekin, trafiko eta bide-segurtasunarekin, ingurumenarekin, ikuskizunekin, zibersegurtasunarekin, polizia judizialarekin eta abar lotutako eskumenak.

Hortaz, Estatuarekin adostu beharko litzateke, Segurtasun Batzordearen baitan, 2009ko aurreikuspena luzaz gaindituta dagoela eta beste akordio bat beharrezkoa dela, 6 urte barru Foruzaingoa 1.800 kide izan ditzan, halako moldez non 1.200 kideko plantilla mantentzeko beharrezan gain lan publikoaren eskaintza bereziak egin daitezten adosten den kide-kopuruaren arabera (100 lanpostu inguru akordioaren indarraldiaren urte bakoitzean).

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. Zergatik dago geldirik departamentuak Foruzaingorako iragarri zuen lan publikoaren azken eskaintza?

2. Departamentuaren ustez, 1.200 kideekin posible al da Foruzaingoa bete ahal izatea Nafarroako erreferentziako polizia den aldetik ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskumenak?

3. Eskatu al du departamentuak Segurtasun Batzordearen deialdia egin dadin 2009an hitzartutako kide-kopurua handitzea negoziatzeko? Baiezkoan, noizko aurreikusten da Segurtasun Batzordearen bilkura hori?

4. Departamentuaren ustez, gutxienez ere 1.800 kide beharko al lirateke herritarren segurtasunarekin, ordena publikoarekin, trafiko eta bide-segurtasunarekin, ingurumenarekin, ikuskizunekin, zibersegurtasunarekin, polizia judicialarekin eta abar lotutako eskumenak oso-osorik betetzeko?

5. Departamentuak ba al du asmorik Segurtasun Batzordearen baitan kopuru zehatz bat planteatzeko Foruzaingoa plantilla handitzearen negoziazioan, halako moldez non eskumen horiek oso-osorik bete ahal izanen dituen?

Iruñean, 2024ko ekainaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **11-24/PES-00315. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena")**

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena").

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, idatziz erantzun diezaion:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuak honako hau dio: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena". Departamentu horrek zer urrats egiteko asmoa darabil gogoan hori betetzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17n

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

**11-24/PES-00316. Galdera, trafikoko isunak *online* ordaintzeari buruzkoa***IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, trafikoko isunak *online* ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Nafarrek noiztik aitzina ordaintzen ahalko dituzte trafiko-isunak *online*?

Iruñean, 2024ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

**11-24/PES-00317. Galdera, joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruzkoa***JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektua izapidetzen ari da gaur egun. Erregelamenduaren zirriborroaren arabera, joko-instalazioen edo lokalen funtzionamendu-ordutegiak aldatuko dira. Testuan orobat jasotzen da murriztu egingen dela bingoak nahiz joko-aretoak ixteko ordutegia. Kontuan hartuta gaur egun 03:30ean ixten direla bingoak eta joko-aretoak, honako hau galdetzen dugu:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektuaren arabera, 3 orduz murriztuko da joko-aretoak ixteko ordutegia, eta 30 minutuz soilik erregioko bingoak ixtekoa. Nafarroako Gobernuak zergatik egingen du hori?

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## 11-24/PES-00318. Galdera, Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García

Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektua izapidetzen ari da gaur egun. Erregelamenduaren zirriborroan jokoaren sektoreko enpresen produkzio-ereduari nahiz ordutegiari eragiten dioten neurriak jasotzen dira. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Inolako baloraziorik egin al du Nafarroako Gobernuak neurri horiek izan dezaketean eragina dela-eta? Hau da, neurri horiek enplegua zuzenean ala zeharka suntsitzen ahal duten eta ukitutako enpresetan lanaren antolamenduaren gaineko baldintzak aldatzen ote dituzten ?

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00319. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektua izapidetzen ari da gaur

egun. Erregelamenduaren zirriborroaren arabera, BMB motako makinak bingoetan soilik onartzen dira, nahiz eta B motako makinak joko-aretoetan egon ohi diren. Hori dela-eta, honako hau galdeztzen dugu:

Nafarroako Gobernuak gogoan al darabil BMB motako makinak joko-aretoetan instalatu daitezkeen baimentzea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

**11-24/PES-00320. Galdera, bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruzkoa***JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioko eledun Javier García

Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektua izapidetzen ari da gaur egun. Erregelamenduaren zirriborroaren arabera, bingo-aretoetan B motako joko-makinak instalatzen ahalko dira. Foru-dekretuaren proiektuaren gaur egungo testuaren arabera, bingoek eta joko-aretoek ixteko ordutegi berezituak izanen dituzte, eta kontuan hartuta B motako makinak joko-aretoetan egon ohi direla, hauxe jakin nahi dugu:

Foru-dekretuaren proiektuaren gaur egungo testuak zergatik baimentzen du bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko ordua eta gero funtzionatzen egotea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00321. Galdera, ekografia urgentetarako irispideari begira merkatuko aldez aurretiko kontsulta egiteari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, ekografia urgentetarako irispideari begira merkatuko aldez aurretiko kontsulta egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak Berrikuntzako Erosketa Publikoaren baitan argitaratu zuen mer-

katuko aldez aurretiko kontsultaren deialdiaren oinarrietan (ekografia urgentetarako irispidea, herritarrarentzako laguntza integral eta jarraitua oinarritzeko parte gisa), 2024ko apirilaren 8ra bitarteko epea ezarri zen proposamenak aurkezteko; epe hori, ordea, luzatu egin zitekeen, beharrezkoa balitz.

1. Bukatu al da, ala zabalik dago oraindik, proposamenak aurkezteko epea?

2. Epea bukatu baldin bada: zenbat proposamen aurkeztu dira?

3. Egin al da kontsultaren emaitza laburbiltzen duen ondorioen azken txostena?

4. Lizitazioa 2024ko bigarren sei hilekoan argitaratzeko epea mantentzen al da?

5. Nafarroako Gobernuak zer egunetarako eduki nahi du baliagarri sistema berria?

6. Nafarroako Gobernuak zein uste du izan daitekeela proiektu horren lizitaziorako gehieneko zenbatekoa?

7. Funtz berekiekin ala Europako funtsekin finantzatu da? Zein partida gaitu da horretarako?

Iruñean, 2024ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00322. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruzkoa

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak 54.970 pertsona zaurgarri hasi da kobratzen, bizitzeko gutxieneko errenta dela-eta bidegabeki kobratu zutena itzultzen has daitezten.

Bizitzeko gutxieneko errentaren kudeaketaren gaineko eskumena dauka Nafarroak, Transferen-

tzien Batzordeak eta Nafarroako Foru Komunitateak lortutako akordioaren arabera, 2022ko apirilaren 12an argitaratua.

Horren arabera, Nafarroako Gobernuak hasi al du bizitzeko gutxieneko errenta dela-eta bidegabeki kobratutakoa itzultzeko prozedura?

Hala baldin bada, noiztik eta noiz arte berrikusi dira prozedurak eta zenbat pertsonari eragin dio Nafarroan bidegabeki kobratutakoa itzuli beharrak?

Ezezkoan, zerk justifikatzen du erabaki hori?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

---

## **11-24/PES-00323. Galdera, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Udal-aterpetxeak albo batera utzita, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak egoitza-izaerako zenbat plaza eskaintzen ditu, asteko egun guztietan eta 24 orduan, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzat?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00324. Galdera, Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat egoitza plaza dago aurreikusita igotzea Iruñean, Bazterkeria handiko arriskuan daudenei laguntzeko Plan Integrala onetsi baino lehen? Udalen diruarekin ala erkidegoaren diruarekin finantzatzeko dira?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00325. Galdera, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroan ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteari dagokionez:

1. Kontuan hartuta Moves III Planeko zuzeneko laguntzak 2024ko uztailaren 31n bukatuko direla, Nafarroako Gobernuak gogoan hartu al du laguntzak ematea horretarako Nafarroako aurrekontu orokorretako funts berekiekin, baldin eta ez bada beste Moves plan bat ezartzen?

2. Nafarroako Gobernuak ba al dauka balioespenik zuzeneko laguntza horiek eskatu eta halakorik gabe gera daitezkeen eta indarrean den zerga-kenkaria soilik balia dezaketen eskatzaileen kopurua dela-eta?

3. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik era horretako ibilgailuak erosteagatik dagoen zerga-kenkaria mantentzeko?

4. Hala baldin bada, Nafarroako Gobernuak aintzat hartzen al du zerga-kenkaria hobetzeko aukera, baldin eta ez bada erosketarako zuzeneko laguntzarik ezartzen?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## **11-24/PES-00326. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruzkoa**

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak urtebeteko epea ezartzen du Hitzaurreko IV. puntuan eta xedapen gehigarri bakarrean kulturaren arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsi ditzan, non zehaztuko baita zein diren prestazioak bere eskumen esparruetan, haien kalitatea hobetzeko eta herritarren beharrei, gogoei eta eskaerei hobeki erantzuteko, bai eta, azkenik, foru lege honetan aitortzen diren eskubide kulturalen erabilerarako irispidea bermatzeko ere.

Horri dagokionez, prestatu al dira jada legeak ezartzen dituen zerbitzu-gutun horiek? Hala baldin bada, non kontsultatzen ahal dira?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## **11-24/PES-00327. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzkoa**

### *ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratu gabe daude gaur, oraindik ere, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak, nahiz eta kontseilariak zehaztasunez jakin datu hori 2024ko ekainaren 4an, 5ean eta 12an egindako agerraldietan. Zergatik?

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray





